

ABERRI EGUNA 2018

GURE ETORKIZUNA, GURE ABERRIA.

ADIERAZPENA

2018ko apirilaren 1ean



eaj-pnv.eus



GURE ETORKIZUNA, GURE ABERRIA

Aurten ere, eusko abertzaleok Aberri Eguna ospatuko dugu, gure Aberriaren Egun handia. Gu baino lehenagokoez aurreko mendeko 32an Bilboko kaleetara euskal aberriak bere etorkizuna askatasunez eta bere kabuz erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatzera irten zirenean erakutsi zuten irmotasun eta uste oso berberarekin egingo dugu.

Euskadi da eta izango da euskal emakume eta gizonen aberria. Ondorioz, gure xedea da Euskal Herria, Euskadi izeneko proiektu politikoaren aterpean egituratua, Europako mapan beste nazioen pare egotea, naziotzat hartua izan dadila. Bere hiritargoaren borondatea errespetatua izan dadila eta, horren ondorioz, bere antolaketa instituzional eta juridikoa herriek beren burua askatasunez erabakitzeko duten eskubidearen markoan egituratzeko aukera izan dezala. Hori da gure etorkizuna.

Gure ideario eta praktika politikoan indarrean dirau alderdi honi, Euzko Alderdi Jeltzaleari, bizia eman zion printzipio demokratikoak. Printzipio nagusi hori da Euskadiren askatasun nazionala eta soziala. Baina, egunotan, garai zailak bizi ditugu euskal nazioaren eraikuntzan aurrera egiteko estrategia politikoa finkatzeko. Euskadik eta bere proiektuak zerumuga hurbilean auke-

ra esparruak aurki ditzakeelaren itxaropena elikatuko lukeen globalizazio nahi hori mundu mailako potentzien aldetik ematen ari den protekzionismo berriak otzandu du. Lidergo ekonomiko eta geo-estrategiko berriek, nazioartekotu den terrorismoari aurre eginez bilatzen den segurtasunak eta gatazkez josita dagoen Hegoaldetik etor daitekeen eztanda migratzaileari zaion beldurrak, miseriak eta giza eskubideak narriatu izanak denboran atzera egitera eraman gaitu: atzera egin dugu merkataritza askean, merkantzia eta pertsonen zirkulazio askean, ideiak eta informazioa askatasunez zabaltzeko prozesuetan. Gaur egun, berriz inposatu dira indartsuenaren legea, autarkia, nor berea defendatzea eta ezberdina arbuizatzea eta informazioa kontrolatzea, joko arauak menderatzeko tresna gisa.

Ez dira garai onenak Europarentzat. Oraindik ez du aurkitu Batasunaren proiektua bultzatzeko behar duen lidergoa, nortasun krisiari, garapen eta elkarrizketa krisiari erantzuna eman nahi dioten populismo eta estremismoei alternatiba bateratua eman ahal izateko. Erabat premiazkoa da jardunbide erabakigarri eta bateratua abian jartzea, hiritargoaren kezka eta ardurekin konektatzeko gai izango dena.

Euskadik bere autogobernuaren etorkizunean pentsatu ahal du baldin eta




autogobernu hori Europako Batasunari lotzen bazaio, estatus gaindiko paradigmari, etorkizun partekatua-ren inguruan osatutako nazioen federakundeari, mugaz gaindiko benetako demokraziari. Europa batua herrien borondatearen bidez diseinatu zen. Borondate hori Estatuaren interes eta botereek manipulatu dute eta beren probetxua atera nahi dute “Batasunaren interesen” kontra. Gobernuaren arteko jardunak egitura berria eraikitzeko ametsa mehatxatzen du, irrikatzen eta Europako Batasuna deitzen genduen hura. Uste osoa dugu Kontinente Zahar honetan Estatuak “demos” edo subjektu politiko protagonista eskusibo izateari utzi behar diotela. Behar-beharrezko jotzen dugu erabakitzearen protagonismoa Europaren aniztasuna egiten duten herri eta nazioen esku jartzea. Estatu gaitasun berehalakotasun sozialarekin lotu behar da, handia txikiarekin. Europak muga gabeko unibertso izan behar du eta sustrai sakonak izan behar ditu tokian tokiko esparruan, hurbilekoan, aitortutako nazio komunitateetan.

Formula honen eboluzioan aurrerapauso esanguratsuak ematen ez diren arren, gero eta argiago dago Europako Batasunaren baitan Estatu kideez besteko subjektu politikoek beren aldarriak egiten dituztela. Eskozia, Katalunia, Flandria eta Korsikaz ari gara. Azken honek, berrikitan, bere autogobernua eta erabakitze gaitasuna

aldarrikatu ditu Frantziako Estatu berruan, baina orain arte ez du arrakasta handirik lortu. Europa, edo hobeto esanda, Europako Batasuna euskal abertzaleentzat da Euskadi gure aberriaren helmuga. Nazio gisa aitortua izateko aukeraren zain dago eta, ondorioz, beste nazioen pare, gizarte aurreratu, bidezko, orekatu eta demokratikoa garen aldetik, gure ahalmen guztiak gartzeko aukera emango digun proiektu politiko bateratuan parte har dezagun.

Europako zerumugan hodei beltzak antzematen baditugu, argiak eta ilunak ikusten ditugu hurbilen daukagun esparruan, Espainia eta Frantzia Estatuetan, gure aberria kokatzen den lurraldean. ‘Hexagono’ deritzonak, lehen aldiz Ipar Euskadiko hiru lurraldeak -Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea- hartzen dituen Lurralde Elkargo berriak autogobernu ekimen berriak abian jartzea ahalbidetzen du euskara, kultura eta mugaz gaindiko lankidetzaren arloetan. Erakunde horrek itxaropen leihobat ireki du euskal aberriaren kausarentzat. Frantziako Estatuaren lurralde antolaketa berri honek orain arte eman ez den aukera zabaldu du Pirinio mendien aldi banatan bizi diren euskal herritarrentzat. Egitura administratibo berri honen ahalmenak, orain arte behar bezala neurtua izan ez den arren, aukera berezi eta berebizikoa eskaini beharko du Euskadi gure proiektu politikoaren nazio izateari indartzen lagunduko duten lotura



soziologikoak, kulturalak, ekonomiko, politiko eta afektiboak eraikitzeko.

Espainiako Estatu barruan eta EAJ-PNVk eragiteko izan duen ahalmenari esker, aurreko ekitaldian aurrerapauso esanguratsuak lortu ziren autogobernu mailan. Ekonomia Ituna eta Ekonomia Hitzarmena berriztatzea eta kupoen kitapena izan ziren hodei beltzez eta arriskuz beteta aurkitzen genuen egoeran lortu genituen elementu positiboetako batzuk. Ipar Euskadin eratu den figura administratibo berria eskalaberriaren kausarentzat elementu positiboa izan den neurri berean, Nafarroan ‘Aldaketaren gobernua’ eratu izana itxaropentsu egoteko beste arrazoi bat da. Foru eta udal hauteskundeetarako urte bete falta delarik, Nafarroako Gobernua egonkor dago eta Erresuma Zaharreko gizartea eraldatzeko gaitasunari eusten dio. Eraldaketa garapen ekonomikoan, gizartearen modernizazioan, apurketarik gabeko elkarbizitzan, eskubideak hedatzeko eta kulturak eta nortasunak errespetatzeko bidean. Alderdi ezberdinek osatutako Exekutiboaren bideragarritasuna auzitan jartzen zutenak, mendekua bilatzeko aldaketa iragartzen zutenak, erratu egin dira. Nafarroako gobernua eusten duten alderdien artean ezbaiak egon arren -hauteskunde aurreko aldietan ohikoa den zer-bait- Nafarroako aldaketa politikoaren zikloak aurrera egin behar du etorkizunera begira. Hori dena egin beharko

da erregimen zaharreko eskuindarrek Gobernu berriaren izen ona zikintzeko, eraso egiteko eta gatazka bilatzeko kanpaina etengabea egin arren.

Kezka handiz begiratzen diogu Espainiako Estatuan ematen ari den egoera politikoari. Azken hamarkadetan lurralde egituraren eta errealitate nazioanitzaren aitortzen eman den krisi instituzionalak elkarbizitza politikoaren eze-gonkortasun eta gatazkara eta printzipio demokratikoen murrizte arinera eramaten du. Krisi ekonomikoaren ondorioek beraiekin ekarri zuten birzentralizazio politikaren mehatxua. Hauxe izan zen, zalantzarik gabe, eraginkortasuna eta austeritatearen aitzakiapean porrot egin duten eredu autonomikoa eta lurralde ereduak ezkatatzeko hartu zuten bidea.

Murrizketa haien ondoren, alde bakarretik hartutako erabakiek, erakundearen arteko solaskidetzarik ezak eta Estatuan elkarrekin bizi diren nazio bereziak ez aitortzen jarraitzeak kokatzen gaituzte, gaur egun, are egoera larriago batean: elkarbizitza politiko ereduaren apur daitekelaren arriskua, zeinetan ustezko legalitate printzipio bat printzipio demokratikoaren gainetik jartzen den eta printzipio hori baldintzatzen duen. “Estatuaren indarra” “legalitate-legitimitate” balantzan nagusitu da eta ezarritako prozedurak bihurtzeraino iritsi dira zuzenbide eta legitimitate demokratikoak babesten



ez duten boterea arbitrariotasunez baliatzeko.

Bada, hori dena horrela izanik ere, Katalunian Konstituzioaren 155. artikulua “ex novo” aplikatu izanak inoizko egoera larrienean kokatu gaitu. Ez dago lege babesik Gobernu bati autogobernu erregimen bat bertan behera uztea eta kontrolpean jartzea baimenduko dionik. Ez dago lege testurik lege eta parlamentuko gehiengo batez eratu zen Gobernua kargugabetzea arrazoituko duenik. Ez dago babes konstituzionalik Parlamentu bati betoa jartzea edo aurretiaz kontrolatzea baimenduko duenik, ezta hauteskundeen salbuespentasunari eutsiko dionik, zeina araudi autonomiko edo Estatutuan izan ezik -nazionalitate baten erakundeak arautzen dituen lege organikoan- ezin legetan jasotzen ez den. Inposatzeko jarrera hori eman da elkarrizketa edo ez bai zilegirik eza konpontzeko borondate politikorik ez dagoelako. Are urrutiago joan dira demokratikoki aukeratutako buruzagiak espetxeratu dituztenean sekula ere indarkeria baliatuta defendatu dituzten ideiak aldeztu dituztelako.

Duela gutxi, Espainiako Estatuan “Trantsizio eredugarria” goresten zen, baina gaur egun ikusten dugun gauza bakarra da trantsizio hori asumitu ez zutenak irabazten ari direla. Horrela bizi gara demokraziak atzera egin duen egoera batean. Adierazpen eta iritzia

emateko askatasunek talka egiten dute puritanismoa eta zentsura inposatzen duten legeen aplikazioarekin. Garai hauetan errazago egiten da “a por ellos” oihukatzea, elkar ulertzeko eta elkarrekin hitz egiteko harremanak ahalbidetzea baino. Letra handiz idatzitako politika desagertuta dago. Ezadostasun legitimoa judizializatuta dago. “Demokrazian dena egin ahal da” esaldia bere balioa galtzen hasia da ordezkaritza publikoak arrazoitzen zail gertatzen den ustezko matxinada delituagatik esperatzen direnean. Berrikitik esan genuen Auzitegi Gorenak Kataluniako agintari nagusiak auzipetzeko hartu zuen erabakiaren aurrean: ez gaude ados erabaki judizialekin eta atxilotutako guztiak askatzea erreklamatzeko dugu.

Ezin okerrago jotzen dugu Espainiako estatuan politika judizializatzeke hartu den bidea. Judizializazio hau da elkarrizketa politikokoak porrot egin duelaren adierazle nagusia. Kataluniako erakundeak Espainiako epaileen kontrolpetik ateratzea exijitzen dugu eta uste osoa dugu Kataluniako egoera politikoa eta han bizi den gatazka ezin izango direla konpondu ebazpen judizialen bidez edo espetxeratzeen bidez, baizik eta elkarrizketa bidez, politika eta negoziaketa bidez eta, azken finean, kataluniar hiritargoak askatasunez eta demokratikoki adierazitako borondatea errespetatuz.



Jabetzen gara lehen mailako erronka politikoaren aurrean gaudela eta gaurko panorama ikusita, Euskadik Espainiako Estatuarekin dituen harremani dagokienez, are okerrago jar daitezkeela parlamentuko ezegonkortasunak aurrera egiten badu eta hauteskundeak aurreratzen badira. Gaur egungo espainiartasun olatua, “patriotismo konstituzionala” ordezkatzeko orduan nor baino nor gehiago agertzeko lehia horretan, benetako elkarriketarik ezak eta ezberdinarekiko errespetua eskainiko duten alternatibarik ezak ekarri ahal digute eskuindarren gehiengo berri bat, berriz ere, Aznarren garaira, Estatuaren “harmozazio” egoerara eta gure autogobernuaren berezitasunaren zapalkuntza eramango gaituena.

Behar bada, orain bizi dugun testuingurua ez da onena izango Eusko Legebiltzarrean, adostasun bidez, Euskadiko autogobernua eguneratuko duen Estatus Berria onartzeko lanari ekiteko. Hala eta guztiz ere, beharrezko jotzen dugu begirune juridiko-politiko berri baten bidez, Euskadiko autogobernua eguneratuko duen Estatus Berria onartzeko lanari ekiteko, Euskadiko bakean bizi gaituzten eta aurrera egin dezagun. Autogobernu Estatu berria lantzea, euskal herritarren belaunaldi berri batek bere bizitza eta itxaropen aurreikuspenak adiskidetasun eta egonkortasun egoeran garatzeko aukera izan dezan.

Hainbatetan, une honetan Eusko Legebiltzarrean lantzen ari garen proposamenarekin bilatzen diren helburu zehatzak zehaztu nahi ditugunean, kontzeptuak eztabaida nominalistetan sinplifikatzeko hutsegitean erortzen gara. Printzipio politikoetan, hiru dira etorkizuneko egituraketa juridikoaren oinarriak: Euskadiren nazio izaera aitortzea; etorkizuna erabakitzeko eskubideak aitortzea; eta elkarrenganako errespetuan oinarrituta adosteko borondatea. Horren arabera, euskal Estatus Politikoa Berria izango da bizirauteko borondatea duen nazio nortasun historikoaren adierazpen politikoa. 1936an eta 1979an adierazi zen nortasun kolektiboaren adierazpen instituzionala eta orain berritzeko borondatea berresten duena, bizitza publikoaren esparru guztietara proiektatuz. Hortik aurrera, helburu nagusia da Euskadiko botereei ahalik eta eduki gehien ematea eta mailarik gorenean jartzea.

Estatus Berria, zertarako? Hainbatetan esan dugu: guretzat autogobernua da euskal emakume eta gizonen ongizatea kudeatzeko sistema. Gure Aberria nola eraiki nahi dugun eta zer nolako etorkizuna izango duen. Nahi dugun akordio berria justifikatuta dago gure nortasuna garatzeko botere maila handiagoak edo tresna hobekiak lortzeko gogoarekin. Herri honen arazo handiei erantzuteko tresna izan behar du. Itun bat, akordio baliagarri bat, euskal



emakume eta gizonen ongizate ekonomiko eta soziala hobetzeko, osasuna, hezkuntza eta kultura bide onetik garatzeko.

Inoiz hitz egin dugu proiektu politiko arrakastatsua bermatzeko beharraz, zeinetan hiritargoa eroso eta babestuta sentituko den. Babesik ez dutenen eskubideak babestuko dituen aberria. Pertsonen zahartze prozesuan duintasuna bermatuko duena. Bizitzaren azken etapan segurtasuna emango dena eta, aldi berean, gazteei lan munduan eta prestakuntza alorrean sartzeko aukerak emango dizkiena, beren bizitza esperientzietarako eta emantzipatzeko ateak zabalduko dizkiona. Zahartzea Euskadin gizarteak daukan arazo bat da eta are maila garrantzitsuagoan jarri beharko genuke, jaiotze tasa igotzeko eta pizteko neurriekin, familia eta lana uztartzeko neurriekin eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna, egiazkoa eta eraginkorra, lortzeko neurriekin. Arazo horri lotuta, laugarren iraultza industrialaren ondorioei begiratu beharko genieke, gure produkzio markoa modifikatzeko beharriari, ondorioak enplegu kopuruan eta beren kalitatean izango dituela gogoan. Etorkizun horretan, aberri horretan eraiki nahi dugun euskal gizarteak belaunaldien arteko erreleboa gauzatzeko eredu bat edo batzuk bilatu behar ditu eta desberdintasun tasak murriztu behar ditu. Erronka erabakigarriak dira orain arte erakundeetan erakutsitako

gaitasuna arazo horietara eta bestetara bideratu beharko delako, konplexutasuna zuzentasunez kudeatuz.

Gakoa dago herrialde bakoitzak sortzeko eta garatzeko gai den adimen praktikoan, lortuko den gaitasun mailan eta ezagutzaren gizarte horretan lortuko duen postuan. Azken finean, mundu mailan konektibotasunak hartu duen forma berri honetan har daiteken lekua ezagutzean. Estrategia horretan argi izan behar dugu gure aliantzak zein diren, gure sistema produktiboak nora abiatu behar diren eta ezagutzan inbertitzeak prozesu horretan zer funtzio bete beharko duen. Gauzak besteek baino hobeto eginik. Horiek dira gure Aberria, gure etorkizuna konkistatzeko orduan gainditu beharko ditugun erronkak. Eta hori, interpretazio desberdina izan dezaketen kontzeptuen gainean egin daitekeen eztabaida baino askoz gehiago da.

Espainiako Estatuan zailtasunez jositako urteak iragartzen dizkiguten argudioak gero eta indartsuago entzuten diren bitartean, euskal hiritarrok orain arte eraikitakoa babesteko lana egin behar dugu, beharko balitz, haren aterpean babesteko eta, unea helduta, aurrerapauso berriak emateko eta abantzen eta erabaki esparru berriak irabazteko. Horrek ez du esan nahi ezeri uko egin behar diogunik. Guztiz alderantziz. Planteamenduen irimotasunak ez gaitu, inola ere, erre-



litate printzipioa begi bistatik galtzera eraman behar. Bide segurutik joan nahi badugu, garaipena lortzeko estrategiak garatu beharko ditugu, hasiera batean esparru txikikoa eta aldi baterakoa izan arren. Eta horretarako ezinbesteko izango dugu ahaleginak neurtzea, aurrez-aurre planteatuko zaizkigun arriskuak identifikatzea eta gure ekimenean asmatzeko helburuarekin emateko prest gauden urratsak behar bezala neurtzeko. Oraingo egoera honetan, eusteak irabaztea esan nahi lezake. Erronkari eustea Euskadiren garaipenak defendatzeko, aberri gisa eta gizarte gisa. Erronkari eustea demokrazia eta nazio eraikuntza sakontzen jarraitzeko bidean aurrera egiteko prest dagoen gehiengo sozialaren legitimitatea eskuratzeko, eta Euskadin ezinbesteko dugu hori dena gauza bera izatea. Bide horretan, adostasuna bila

dezagun. Euskal emakume eta gizonen arteko akordioa, aurrera egiteko urratsak eman ditzagun. Euskadi indartzeko akordioa.

Euskal emakume eta gizonok orain arteko bidean planteatu zaizkigun gorabehera guztiak gainditzeko adorea erakutsi dugu eta gure nortasunari, gure kulturari eta gure izaera bereziari eusten jakin dugu. Aurrera egiten jarraitzen duen historiaren protagonista izan gara, gara eta izango gara. Bere xede nagusia da Euskadi, euskaldunen aberria.

Gure etorkizuna da, gure Aberria. Eta bere zerbitzura gaude.

Euskadin, 2018ko apirilaren 1ean.